TOLOSALDEAN "GAZTEAK ONGI ETORRI" PROGRAMA KUDEATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA.

LABURPEN TAULA

A) KONTRATUAREN XEDEA
Tolosaldeko Gazteak ongi etorri programa kudeatzeko lanak egiteko erakundea. CPV kodea: 92000000-1 Aisialdi-, kultura- eta kirol-zerbitzuak
B) LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA
2025-26: Lizitazio prezioa: 35 euro orduko. Guztira 232 ordu taldeko (2 begirale, 3 talde), irailak 14tik ekainak 30a bitartera : 24.360 euro. 2026-27: Lizitazio prezioa: 36 euro orduko. Guztira taldeko 232 ordu taldeko (2 begirale, 3 talde) , irailak 13tik ekainak 30a bitartera: 25.056 euro. 2027-28: Lizitazio prezioa: 37 euro orduko. Guztira taldeko 232 orduko (2 begirale, 3 talde), irailak 12tik ekainak 30era: 25.752 euro. Balio Zenbatetsia, Gehieneko aurrekontua 75.168 euro.
C) LIZITATZAILEAREN KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA EGIAZTATZEKO AGIRIAK
Plegu honetako 12. klausulan jasotakoa
D) PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA
15 egun naturaleko epean, iragarkia Kontratatzailearen Profilean agertzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.
E) ESLEIPEN-IRIZPIDEAK
- Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak: 60 puntu arte. - Formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideak: 40 puntu arte.
F) KONTRATUAREN IRAUPENA
2025eko irailak 14tik 2026ko ekainak 30era bitartean.
G) LUZAPENAK
Bi urte, 2026-2027 ikasturtea (irailak 13tik ekainak 30era) eta 2027-2028 ikasturtea (irailak 12tik ekainak 30era)
H) BEHIN-BEHINEKO BERMEA
Ez da eskatzen.
I) BEHIN BETIKO BERMEA
Esleipen prezioaren 5%a, Bez kanpo.

Tolosaldea garatzen

KLAUSULAK

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN HELBURUA. LOTEAK. ALDAKETAK EDO ALTERNATIBAK

Agiri honen arabera egiten den kontratuak xede hau izango du: Tolosaldeko Gazteak ongi etorri programa kudeatzeko lanak egiteko elkarte, enpresa edota kooperatiba kontratatzea, hori guztia espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera.

CPV kodea: 92000000-1 Aisialdi-, kultura- eta kirol-zerbitzuak (administrazio-, gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta kultura-zerbitzuak)

1.2. Loteak: Kontratu honen xedea lote bakarrean jaso da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, kasu honetan, kontratua lote bakar batean lizitatzen da, kontratuan aurreikusitako prestazio guztiak modu koordinatuan garatu behar direlako, eta hori ezinezkoa izan daiteke hainbat kontratistarekin.

1.3 Aldaketa edo alternatibak: ez dira onartuko.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA GAUZATZEKO EPEA

1.1. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, beste bi urtez (2) luzagarria.

Luzapena kontratazio organoak erabakiko du eta kontratistarentzat nahitaezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baino BI HILABETE lehenagotik adierazten bada.

Nolanahi ere, kontratuaren luzapena berariaz onartu beharko da.

2.2. Kontratuaren xede diren lanak gauzatzeko epea kontratuaren urte 2025eko irailak 14tik 2026ko ekainak 30 bitartera izango dira. Luzagarria izan daiteke beste 2 ikasturte (irailak 13tik ekainak 30era), bi aldeek ikasturtea amaitu baino bi hilabete lehenago idatziz adostuz gero.

Beraz, kontratuaren xedeak ikasturte haiek hartzen ditu bere baitan: 2025-2026 (luzagarri bi ikasturte 2026-2027/2027-2028).

3. KONTRATUAREN PREZIOA. BALIO ZENBATETSIA

2025-26: Lizitazio prezioa: 35 euro orduko. Guztira 232 ordu taldeko (bi begirale, 3 talde), irailak 14tik ekainak 30a bitartera : 24.360 euro.

2026-27: Lizitazio prezioa: 36 euro orduko. Guztira taldeko 232 ordu (bi begirale, 3 talde) , irailak 13tik ekainak 30a bitartera: 25.056 euro.

2027-28: Lizitazio prezioa: 37 euro orduko. Guztira taldeko 232 ordu (bi begirale, 3 talde), irailak 12tik ekainak 30a bitartera: 25.752 euro.

Lizitatzaileek kopuru hori beherantz hobetu dezakete.

Lizitazio aurrekontuan barne hartuta daude kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak, eta baita, aplikagarri zaizkion edozein motatako zergak ere. Balio erantsiaren gaineko zergak bereizita agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari aplikagarri zaion arautegiaren arabera tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

Balio zenbatetsia: 75.168 euro.

4. FINANTZAKETA

Garapen Agentzia honek kontratu hau finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Alorreko Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiaren aniztasunaren kudeaketari lotutako dirulaguntza izenduna 2025 eta Eusko Jaurlaritzako 2025ko dirulaguntza deialdira, eta Eusko Jaurlaritzako Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoko-Etorkinen harrera eta integrazioko zuzendaritzako "Immigrazioko eta kultur arteko bizikidetzako arloan aktibitate gauzatzeko laguntzak 2025 deialdira joko du.

5. ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuaren prezioa zerbitzuak diraun bitartean hilero fakturatuko da. Ordainketa onartu ondoren egingo da.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratuaren ezaugarriak kontuan hartuz ez da preziorik berraztertuko.

7. BERMEAK

1.- Ez da behin-behineko bermerik exijitzen.

2.- Kontratu honen lizitazioan abantaila ekonomiko gehien duen eskaintza aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du kontratua esleitzeko prezioaren %5aren baliokidea izango da (BEZ gabe).

Berme hori aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, jartzeko eskatzen zaion egunetik aurrera zenbatuta.

Jarritako bermea itzultzeko eskatu ahal izango du esleipendunak, kontratua egikaritzen amaitutakoan eta, hala badagokio, bermealdia igarotakoan.

3.-Bermeak Tolosaldea Garatzenen jarriko dira eta dirutan edo indarrean dagoen legeriak onarturiko beste edozein modutan jarri ahal izango dira.

Dirutan jartzen bada, Laboral Kutxako ES89 3035 0451 684510000060 kontuan sartuko da bermearen zenbatekoa, eta ordainagiriaren kopia bat Tolosaldea Garatzenen aurkeztuko da, bermearen zenbatekoa itzultzeko kontu korrontearen zenbakiarekin batera.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

8. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Prozedura irekia erabiliz esleituko da kontratua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 316. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 156. artikuluari eta hurrengoei dagokienez.

Prozedura ireki horretan interesa duten enpresa guztien eskaintzak aurkeztuko dira, kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionalaren baldintza guztiak betetzen badituzte, eta kontratatzeko debekurik ez badagokie.

9. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Kontratazio organoak honako irizpide objetiboen arabera esleituko du kontratua, beheranzko garrantzia mailaren arabera eta dagokion puntuaketarekin:

A) FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK (40 PUNTU ARTE)

MEMORIA TEKNIKOA (40 puntu arte)

Memoria teknikoaren balorazioa honela egingo da:

- Proposamen tekniko eta metodologia (40 puntu)

Irizpidea (proposamen teknikoko edukiak)	**40 puntu gehienez**
1. Helburuak eta lan metodologia.	10
2. Adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak.	10
3. Zerbitzuaren barne antolaketa eta garapena. Lantaldeko ardurak, funtzioak, jarduerak eta lanak.	5
4. Koordinazioa, barnekoa (lantaldekoa) eta kanpokoa (Tolosaldea Garatzenekin).	5
5. Komunikazioa.	5

6. Ebaluazioa.	5

B) FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEN ESLEIPEN IRIZPIDEAK (60 PUNTU ARTE)

ESKAINTZA EKONOMIKOA (45 PUNTU ARTE)

Eskaintza ekonomikoarekiko balorazioa honako honen arabera egingo da: Gehieneko puntuazio (45 puntu) emango zaio baliagarritzat hartu direnen artean, eskaintza onenari.

Gainontzeko eskaintzak baloratzeko, ondorengo formula erabiliko da:

$$\frac{\text{Gehieneko puntuazio x eskaintza onena}}{\text{Aztertzeko eskaintza}}$$

LANGILEEN IKASTAROAK/FORMAKUNTZA (15 PUNTU ARTE)

Irizpidea	**15 puntu gehienez**
1. Langileek aisialdiko begirale titulua izatea.	5
2. Langileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako ikastaroak izatea . 30 orduko puntu 1.	5
3.Langileek kulturartekotasunari lotutako ikastaroak izatea. 30 orduko puntu 1.	5

10. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honen iragarkia Tolosaldea Garatzeneko kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.tolosaldeagaratzen.eus) Euskadiko kontratazio plataforman kokatu dagoena.

11. SEKTORE PUBLIKOKO LIZITATZAILEEN ETA ENPRESA SAILKATUEN ERREGISTRO OFIZIALEAN ETA EAEKO KONTRATISTEN ERREGISTRO OFIZIALEAN INSKRIBATZEA.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzio-ziurtagiriak egiaztatuko du, bertan jasotakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzak, nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide- edo enpresa-gaikuntzari, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari, gaitasun tekniko edo profesionalari, sailkapenari eta inskribatutako gainerako inguruabarrei dagokienez, bai eta bertan jasota dauden kontratatzeko debekuak betetzen diren ala ez ere.

Era berean, Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatzeak aurreko paragrafoan jasotako inguruabar berberak egiaztatuko ditu.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Erakundeek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLREN 71. Artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Halaber, beren kabuz nahiz baimendutako pertsona batek ordezkaturik egin ahal izango dute hori, horretarako berariaz emandako ahalorde askietsia erabiliz. Pertsona juridikoa bertako kideren batek ordezkatzen duenean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean nahiz bestean, arestian aipatutako kontratatzeko debekuek ordezkariari ere eragingo diote.

Nahitaezkoa izango da antzeko kolektiboekin lan egin izana.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen xedearekin, eta helburu hori behar bezala burutzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu bere erakundeak.

Lehiatzaileek halaber, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun profesionala izan beharko dute.

Lehiatzaileak kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako erakundea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango erakunde hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

Kaudimena egiaztatzeko bitartekoak:

- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:**

  Kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena erakundearen jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko datak kontuan hartuta azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 24.360.- euro edo handiagokoa izan behar du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

- **Kaudimen teknikoa, bitarteko hauek erabilita egiaztatu beharko da (biak):**

1. Antzeko kolektiboekin lan egin izanaren egiaztapena administrazio publikoen ziurtagiriarekin.

2.- Azkeneko hiru urteetan egindako lan nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz. Hau da, azken urteetako memoriak aurkeztu beharko dituzte.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa 24.360- euroren berdina edo handiagoa izatea, kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bere edo antzekoetan. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irispidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Zerrendan adierazitako obren artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen.

2.- Lantaldearen deskribapena: Zerbitzua zuzenean emango duen pertsonak gradu ikasketak izan beharko ditu eta 24. klausulan jasotzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko du.

Aldi baterako erakundearen kasuan, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.

13. ESKABIDEAK AURKEZTEA

13.1.- Proposamenak aurkezteko, **bitarteko elektronikoak baino ez** dira erabiliko, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunen arabera, **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO** epean, aipatutako iragarkia **Tolosaldea Garatzen Kontratatzailearen Profilean** agertzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.

Proposamenak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzita aurkeztu beharko dira.

13.2.- Eskaintzen aurkezpen-erregistroa: Kontratazio Elektronikoaren Erregistro Telematikoa.

13.3.- Formulak ezarritako irizpideei buruzko irekiera-eguna eta ordua: Iragarkian zehazten dena.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du parte hartzeko eskabide bat baino gehiago aurkeztu. Ezingo da beste batzuekin aldi baterako batasun batean parte hartzeko eskabiderik aurkeztu, baldin eta banaka ere aurkeztu bada, eta ezingo da aldi berean batasun batean baino gehiagotan parte hartu. Arau horiek urratuz gero, ez dira onartuko berak izenpetutako proposamen guztiak.

Lizitatzaileek baldintza-agiriei edo, hala badagokio, dokumentazio osagarriari buruz eskatzen duten informazio gehigarria proposamenak jasotzeko ezarritako azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere proposamenak jasotzeko epea amaitu baino gutxienez zortzi egun lehenago egin bada eskaera

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela zehaztapen tekniko hauek guztiak eta gainerako agiriak, salbuespenik gabe.

14. BITARTEKO ELEKTRONIKOAK

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA izeneko aplikazioaren bidez KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA, CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA-en kokatuta.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta data baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman daude. (www.contratación.euskadi.eus).

Eskaintzak bi fasetan bidali ahal izango dira bitarteko elektronikoen bidez. Lehenengo, eskaintzen aztarna elektronikoa helarazi beharko da (jasotzearekin, eskaintzak ondorio guztietarako aurkeztu direla ulertuko da), eta, gero, eskaintza bera gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren igorpen hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza bertan behera utzi dela ulertuko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikotzat hartzen da datu-multzo bat, zeinaren sortze-prozesuak bermatzen baitu datu horiek zalantzarik gabe erlazionatuta daudela eskaintzaren edukiarekin berarekin, eta aukera ematen baitu eskaintzaren edukian gerta daitezkeen aldaketak hautemateko, haren osotasuna bermatuz. Espedienteari erantsi beharreko dokumentuen kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen legerian horretarako ezarritakoa bete beharko dute, bertan ezarritako ondorioak ordeztuz.

Aurkezpen elektronikoa egiteko:

AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Erabiltzaileen Arretarako Zentroa:945016298
Internet helbidea: http://www.contratacion.euskadi.eus
Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus (Elektronikoki lizitatzeko atalaren barruan)

15. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA.

Proposamenek eta horiekin batera doazen agiriek **HIRU (3) GUTUN-AZAL** izango dituzte.

A) 1. GUTUN-AZALA. ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA.

B) 2. GUTUN-AZALA. BALIO-IRITZI BATEN ARABERA KUANTIFIKATU BEHARREKO ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA.

C) 3. GUTUN-AZALA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute konfidentziala den dokumentazioa edo informazioa, sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzaren alderdi konfidentzialei eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziori eragiten dielako, bai lizitazio-prozedura honetan, bai geroagoko beste batzuetan. Konfidentzialtasuna ezin izango da proposamenaren eduki osora

hedatu, eta hedapen mugatua duten dokumentuei bakarrik eragin ahal izango die, eta inola ere ez jendaurrean eskuragarri dauden dokumentuei.

Gutun-azaletan agiri hauek sartu beharko dira:

A) 1. GUTUN-AZALA, "ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA", honako agiri hauek barne hartuko dituena:

1. Lizitatzailearen **erantzukizunpeko adierazpena**, kontratazio-prozedura honetan parte hartzeko aldez aurreko betekizunak betetzen dituela adierazten duena, **"Europako kontratazio-dokumentu bakarraren" (EKAB)** formulario normalizatuaren arabera. Formulario hori Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamenduak ezarri zuen, baldintza-agiri honen **I. eranskinean** jasotakoaren arabera.

   Europako Batzordeak eskaintzen duen EKAB elektronikoko doako lineako zerbitzuak aukera ematen du dokumentu hau elektronikoki betetzeko Interneteko helbide honetan: https://ec.europa.eu/tools/espd

   - EKAB zerbitzu elektronikoarekin, kontratazio-organoak EKAB eredu bat sortuko du prozedura honetarako, lizitatzaileen eskura jarriko dena XML formatu normalizatuan, deialdiko gainerako dokumentuekin batera (dokumentazio osagarri gisa), Kontratatzailearen Profilean.

   - Lizitatzaileak bere ordenagailuan gorde beharko du, tokian bertan, eredu hori XMLn, eta, ondoren, EKAB zerbitzu elektronikoan sartu. Zerbitzu horretan, inportatu, beharrezko datuak bete, inprimatu, sinatu eta EKAB agiria aurkeztu beharko du lizitazioko gainerako dokumentuekin batera.

Enpresaburu bat baino gehiago aldi baterako elkarte bat eratuz lehiatzen badira, elkarte hori osatzen duten enpresaburuetako bakoitzak jarduteko gaitasuna duela egiaztatu beharko du, bakoitzak EKAB inprimaki bereizi bat aurkeztuz, bai eta klausula honen atal honetan eskatutako gainerako agiriak ere. Horrez gain, konpromiso-idazki bat aurkeztu beharko du, non bilduko diren enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetza-ehunekoa eta izendapena adieraziko baitira. Elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar batena, kontratua indarrean dagoen bitartean erabateko ordezkaritza izan behar duena Agiri hori elkartea osatzen duten enpresetako ordezkariek sinatu beharko dute.

Lizitatzaileak beste erakunde batzuen gaitasuna erabili behar badu kaudimena egiaztatzeko, erakunde horietatik bereizitako EKAB agiria ere aurkeztu beharko du.

Kontratua lotetan banatuta badago eta ekonomia- eta finantza-kaudimeneko eta kaudimen tekniko edo profesionaleko eskakizunak lote batetik bestera aldatzen badira, kaudimen-betekizun berberak aplikatzen zaizkion lote edo sorta-multzo bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresek EKAB agiriaren inprimakian bertan adieraziko dute, eta, eskatutako datu edo informazioren bat erregistroan jasota ez badago edo eguneratuta ez badago, inprimaki hori betez aurkeztuko dute.

Hala ere, kontratazio-organoak komenigarritzat jotzen badu, prozedura behar bezala amaituko dela bermatze aldera, esleipen-proposamena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezatela.

2. Talde bereko enpresak.

Talde berekoak diren enpresak, hau da, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean daudenak eta esleipenera banaka edo taldearekin zerikusirik ez duten beste enpresa batzuekin batera aurkezteko proposamen desberdinak aurkezten dituztenak, aldi baterako elkartean parte hartzen badute, izaera hori jasotzen duen adierazpena aurkeztu beharko dute.

Adierazpen esplizitua aurkeztu beharko dute, halaber, hainbat proposamen aurkeztu dituzten sozietateek, baldin eta Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezko kasuren batean badaude, sozietatea osatzen duten bazkideei dagokienez.

3. Atzerriko enpresen jurisdikzioa.

Atzerriko enpresek Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla dioen adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, legokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin beharko diote.

B) 2. GUTUN-AZALA. "BALIO-IRITZI BATEN ARABERA KUANTIFIKATU BEHARREKO ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA.".

Enpresa lizitatzaileak Memoria Tekniko bat aurkeztu beharko du, behar bezala orrikatuta, dagokion aurkibidearekin, eta bertan, zenbakituta,

baldintza-agiri honetako 9. atalean jasotako balorazioaren xede izango diren alderdiak jasoko dira.

- Proposamen teknikoa eta metodologia. Atal honetan proposatutako jardueren aniztasuna, kalitatea eta landutako edukien originaltasuna baloratuko dira.

C) 3. GUTUN-AZALA: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA".

Artxibo elektroniko horretan eskaintza ekonomikoa eta formula bidez kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideak sartu beharko dira.

Proposamenek baldintza-agiri honen II. eranskinean ezarritako eredua bete beharko dute, eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatu beharko du.

* Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bidera ezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.

** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamena ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio-mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.

16. EZ-OHIKO EDO NEURRIZ KANPOKO BALIOAK

Ez-ohiko edo neurriz kanpoko balioak dituzten eskaintzei dagokienez, SPKLren 149 artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuen Araudi Orokorraren 85. artikuluan xedatutakoa beteko da.

17. LIZITATZAILEEN DOKUMENTU ETA DATU KONFIDENTZIALAK.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute zein dokumentu (edo horien zati bat) edo datu diren konfidentzialtzat hartzen direnak, eta ez dira onargarriak izango eskaintzako dokumentu edo datu guztien konfidentzialtasun-adierazpen orokorrak. Konfidentziala dena argi eta garbi adierazi beharko da izaera hori duen dokumentuan bertan, eta, gainera, izaera hori justifikatzen duten arrazoiak adierazi beharko dira. Lizitatzaileek berariaz konfidentzialtzat jo ez dituzten dokumentuak ez dira konfidentzialtzat joko. Egindako eskaintza ekonomikoa ez da inola ere konfidentziala izango.

18. KONTRATAZIO-MAHAIA

Tolosaldea Garatzeneko Kontratazio Mahai iraunkorra izango da.

Gainera, Mahaiak etor daitezela eskatutako tekniko guztiak joan daitezke bertara, aholkularitza-lanak egitera.

19. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Kontratazio-mahaiak agentziaren bulegoetan irekiko du **"A" kartazala**, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan.

Bai hasierako deialdi hau bai gerta litezkeen aldaketak kontratugilearen perfilean argitaratuko dira (www.tolosaldeagaratzen.eus) helbidean. Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokitzat. Kontratazio Mahaiak erantzukizunpeko adierazpena eta balio iritzi bidez balioztatzeko irizpideen eskaintza dakartzan A gutun azala irekiko du. Gutun azal horretako dokumentazioa Kontratazio Organoko zerbitzu teknikoei helaraziko zaie, txostena egin dezaten. Egintza berean, Kontratazio mahaiak kalifikatu egingo du aldez aurretiko baldintzak bete izana egiaztatzen duen dokumentazioa eta lizitatzailearen adierazpen arduratsua, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarrita dauden baldintzak betetzen dituela adieraziz.

Kontratazio-organoak edo kontratazio–mahaiak hala eskatuta, lizitatzaileek adierazpen arduratsua zuzendu beharko dute, baldin ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta.

Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei, hiru laneguneko epea emango zaie, zuzentzeko-errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio-organo edo –mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

Kontratazio Organoak garaiz argitaratuko du kontratatzailearen perfilean, noiz izango den irizpide automatikoei dagozkien eskaintzak irekitzeko egintza publikoa (**B gutun-azala**).

Egintza horretan adieraziko du Mahaiak zer proposamen onartu diren, zer proposamen baztertu diren eta zergatik baztertu diren horiek.
Era berean, jakinaraziko du nola balioztatu dituen balio iritzi bidez balioztatzeko esleipen irizpideak; eta, azkenik, irizpide automatikoak ireki eta irakurriko ditu.

Egintza publikoa amaitutakoan, bilkura berean, eskaintzak ebaluatuko eta sailkatuko ditu Mahaiak.
Aurrez, honelakorik bada, pleguak finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu.

Proposamenen arteko puntuazio berdinketa egongo balitz (bi dezimaletan berdinketa) SPKLren 147.2 atalean jasotako irizpide sozialak hurrenez hurren aplikatuz erabakiko da, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den unea kontuan hartuz.

Gero, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio Mahaiak kontratazio-organoari, puntuaziorik onena lortzen duen hautagaiaren alde; eta zera egiaztatuko du, esleipendun izateko proposatzen duen lizitatzaileari dagokionez: enpresa behar bezala eratu izana; proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalorde askietsia izatea; kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa izatea edo, bestela, dagokion sailkapena; eta kontratatzeko inongo debekuren pean ez egotea.

Gainera, kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio puntuaziorik onena ateratzen duen enpresari.

20. KONTRATUA ESLEITZEA ETA GAUZATZEA

20.1. Kontratazio Mahaiak, SPKLren 150. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoari igorriko dizkio aurkeztutako proposamenak, beheranzko hurrenkeran antolatuak, eta baztertuak edo neurriz kanpokotzat jo direnak salbu, aktarekin eta esleipen-proposamenarekin batera.

20.2 Esleipen proposamenak ez du lizitatzailearen aldeko eskubiderik sortzen. Eskubideak sortuko dira lizitatzaileak kontratua sinatu edo esleipen proposamena onartzen duenean.

20.3 Mahaiak enpresari eskatuko dio (edo ABEE osatzen duten enpresei), Lizitatzaileen Erregistroan izena emanda agertzeko obligaziorik ez badago edo datu edo dokumentuetakoren bat Erregistro horretan jasota ez badago, honako dokumentazio hau aurkeztu dezaten epe berean:

<u>20.3.1. Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:</u>

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna, osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

20.3.2. Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

20.3.3. Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera kontratatzeko daukan kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa. (12. Atalaren arabera).

20.3.4 **Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean ez dagoenaren ziurtagiria**: Adingabeari babes juridikoa ematen dion 1/1996 Lege Organikoak, urtarrilaren 15ekoak, hain zuzen ere 45/2015 Lege Organikoak aldatutakoak ondokoa dio 13. artikuluaren arabera, adingabeekin lan egin nahi duen orok Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean ez dagoela sartuta egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

20.3.5 Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

20.3.6. Dagokion **behin- betiko bermea** aurkeztu izanaren ziurtagiria.

20.3.7. **Laneko arriskuen prebentziorako agirian** aurreikusitakoa bete. **(III. ERANSKINA)**

20.3.8. Esleipenduna enpresen batasun bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik, enpresen Aldi Baterako Batasun gisa legez eratu dela egiaztatu beharko du, eta horren IFK aurkeztu.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza. Kasu horretan, puntuazioan hurrengoa den hautagaiaren alde esleitzeko proposamena egingo da eta dokumentazio bera eskatu zaio.

Kontratazio organoari dagokio esleipena egitea eta ebazpen arrazoitu bidez erabakiko da; erabakia esleipendunari jakinaraziko zaio eta baita gainontzeko lizitatzaileei ere. Kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua formalizazioarekin gauzatuko da, SPKLren 153. artikuluan jasotakoaren arabera.

III.- KONTRATUA BURUTZEA

21. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura gauzatuko da SPKLren 197. artikuluan jasotakoaren arabera.

Kontratua betetzeko agiri honetan jasotako klausulak eta, kasuan kasu, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere,

Garapen Agentziaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Agentziak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo bere mendeko pertsonei lepora dakizkiekeen ekintzengatik edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Agentziak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.

22. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Klausula honetan jasotako betebeharrak exekuzioko baldintza berezitzat jotzen dira; horiek ez betetzeak, beraz, agiri honetan horretarako jasotako zigorrak ezartzea ekarriko du, antolamendu juridikoak aurreikusitako ondorioez gain.

Kontratisten gutxieneko lan-baldintzak.

- Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako eta kasuan azpikontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen alorrean indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

- Lizitatzaileek adierazi beharko dute, esleipena jaso ezkero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa eta, halaber, eskatzen den informazio guztia eman beharko dela, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.

- Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko duela, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

- Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, enpresa esleipendunak adierazita badauka kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaiela halako hitzarmen kolektiboa.

- Lehiatzen direnek beren buruaz eta beren borondatez onesten dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuen ondorioz sortzen diren datu guztiei, prozesu horiek bukatu arte.

- Kontratua esleitu ondoren langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatutako beste edozein informazio eman beharko du esleipendunak.

23. KONTRATUA BETEARAZTERAKOAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA

Enpresa esleipendunaren ardura da kontratuko lanen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196.artikuluan xedatutakoaren arabera.

24. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Atal honetan jasotako hizkuntza baldintzak exekuzioko baldintza berezitzat jotzen dira; horiek ez betetzeak, beraz, agiri honetan horretarako jasotako zigorrak ezartzea ekarriko du, antolamendu juridikoak aurreikusitako ondorioez gain.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, agentziak onartuta dituen hizkuntza irizpideak eta euskararen erabilera normalizatzeko.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da:

> *"18.d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen."*

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen du. Administrazioari dagokio zerbitzu jasoleen hizkuntza eskubideak bermatzea.

Horrenbestez, administrazioak bermatu behar du enpresa esleipendunak zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna baduela.

Hizkuntza baldintza hauek kontratuaren funtsezko betebehar izaera dute, eta hauek ez betetzea kontratua hausteko arrazoi izango da (SPKLTBren 223. artikulua).

1. Euskara gaitasunari buruz

Enpresa esleipendunak eskoletako ikasleekin, ikastetxeekin, herritarrekin/familiekin nahiz udalarekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak

bi hizkuntza ofizialetan egiteko, eta esleipena egingo bada, nahitaez egiaztatu beharko dute Europako Erreferentzia Markoaren C-1 gaitasun maila (EGA, IVAPeko 3. HE., HABEren 3. maila).

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du kontratua esleitzea proposatzen den enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna, horretarako egingo zaion eskakizunean emandako epean.

Egiaztapena nola:

Euskara gaitasuna titulu bitartez egiaztatu beharko da (Administrazioak araututako tituluak nahiz HABEk, Hizkuntza Eskola Ofizialak edo Hezkuntzak ematen dituenak).

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago enpresa esleipendunak langileren bat aldatuz gero edo zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Langile aldaketa egiten den guztietan enpresak Garapen Agentziari jakinaraziko dizkio langile berriaren izen-abizenak eta horrek egiaztatutako euskara maila. Enpresak agentziaren aldeko txostena beharko du langile berria lanean hasi aurretik.

2. Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, agentziak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du.

a) Ikasleekin, ikastetxeekin eta herritarrekin/familiekin erabiliko den hizkuntzari buruz:

Tolosaldea Garatzenek onartutako irizpideei jarraituz, ikasleekiko eta ikastetxeekiko ahozko harremana - jardueretan, bileretan...- nahiz idatzizko harremana -ikasleentzako materiala, oharrak, bileretarako deialdiak, aktak...- euskaraz izango da.

Herritar/familia euskaldunekiko ahozko harremana - telefonoz, aurrez aurrekoan, bileretan... – nahiz idatziko harremana -inprimakiak, oharrak, ordutegiak, kartelak-, euskaraz izango da.

Herritar/familia erdaldunekiko ahozko nahiz idatzizko harremanean euskarari emango zaio lehentasuna. Herritarrak/familiak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

b) Enpresaren eta Tolosaldea Garatzenen arteko harreman hizkuntzari buruz:

Enpresa esleipendunaren eta agentziaren arteko ahozko -bilerak, kontsultak, aurkezpenak...- nahiz idatzizko harremanak- planak eta proposamenak, fakturak, txostenak...-agentziaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira,

hau da, euskaraz. Beraz, enpresa esleipendunak agentziarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izango da eta zerbitzua esleitu aurretik frogatu beharko du.

Horretaz gain, beharren arabera eta agentziak eskatzen duenean enpresa esleipendunak idatzizko dokumentazioaren gaztelaniazko laburpena edo itzulpena entregatuko du.

3.- Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz:

Kontratazioa sustatu duen sailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Hizkuntza baldintza horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 212. artikuluari jarraituz. Behin eta berriz urratzeak, berriz, kontratua bertan behera uztea ekar lezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren 223.f artikuluari jarraitu.

25. KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua sinatuta, herri onurako arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango du kontratua agentziak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan.

26. BERME EPEA

Ez da aurreikusi berme epea ezartzea.

27. ZIGORRAK KONTRATISTARI, EZ BETETZEAGATIK

Oso larriak, larriak edo arinak izango dira kontratistak kontratua gauzatzen duen bitartean egiten dituen arau-hausteak.

a) Oso arau hauste larriak izango dira honako hauek:
- Zehaztutako epean zerbitzua ematen ez hastea, edo zerbitzua emateari uztea, ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik.
- Agentziaren baimen espresorik gabe, zerbitzuak osorik edo neurri batean beste bati utzi, alokatu edo eskualdatzea.
- Lanak argi eta garbi gaizki edo modu irregularrean egitea.
- Prestazioaren zaintzaz arduratzen den Zerbitzuko arduradunek emaniko aginduak ez betetzea, lanaren garapenari dagokionez, eta oro har, lan horien prestazioa erregulatzen duten arauak ez betetzea.
- Plegu honetan ezarritako edozein baldintza edo obligazio ez betetzea, gerora erator daitezken ekintzei kalte egin gabe.
- Bi arau hauste larri edo gehiago egitea.

b) Arau hauste larriak izango dira:

- Atzerapen ez sistematikoa, lanak egiterakoan.
- Kontrataturiko langileen eskura agentziak jarritako baliabide materialak eta azpiegiturak behar bezala ez erabiltzea.
- Behin eta berriz akats arinak egitea.

c) Arau hauste arinak izango dira aurreko horietan aurreikusi ez diren gainerako guztiak eta, nolabait ere, baldintza plegu honetan zehaztutako baldintzen kalterako direnean, zerbitzuan kalte larririk eragiten ez badute.

Honako zehapen hauek jarri ahal izango zaizkio kontratistari:

a) Arau hauste oso larriengatik: 601tik 1.000€-ra.
b) Arau hauste larriengatik: 301tik 600€ra
c) Arau hauste arinengatik: 100tik 300€ra.

Hala eta guztiz ere, oso arau hauste larriak direnean, agentziak erabaki ahal izango du zehapenak jarriko dituen, klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, edo kontratua suntsitzeko dagokion espedientea hasiko duen.

Klausula honetan aurreikusi ez diren gaietarako SPKLren 192tik 195 artikuluan jasotakoak aplikatuko dira.

28. AZPIKONTRATAZIOA

Agentziak berariaz baimendu ezean, esleipendunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.

Halaber, aurretik agentziak espreski baimendu ezean, esleipendunak ezingo dio lanen zati bat hirugarren bati azpikontratatu.

29. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLren 211. artikuluan aurreikusitakoak eta Lege bereko 313.artikuluan bereziki zerbitzu kontratuetarako jasotakoak.

Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoi izango da pleguetako 22 eta 24. klausuletan ezarritako kontratua gauzatzeko baldintza bereziren bat ez betetzea.

Nolanahi ere, kontratistak agentziari sortutako kalteak ordaindu beharko dizkio.

IV. <u>IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA</u>

30. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Prestaketari eta esleipenari dagokienean, kontratuak Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu hau izango du arau, eta honetan aurreikusi ez den guztian, berriz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean SPKL) ondorio horietarako jasotako arauak (sektore publikoko erakundeek, botere adjudikatzaile izaera dutenek eta Herri Administrazioa ez direnek, egindako erregulazio harmonizatua bete behar ez duten kontratuetarako) eta, lege horretan aurreikusitakoaren aurka ez dagoenean, HAKLAO.

Izango dituen ondorioei eta iraungipenari dagokienean, kontratu honek Klausula Ekonomiko-Administratiboen Plegu hau izango du arau, eta bertan aurreikusi ez den guztian, berriz, zuzenbide pribatuaren arauak.

Osagarri gisa, SPKL eta HAKLAO aplikatuko dira Pleguak berariaz testu arau-emaile horietara jotzen duen guztian.

Kontratuen prestaketari, esleipenari eta aldaketei dagokienez, azken horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena, aipatutako errekurtso berezia ebatzi ondoren, eta errekurtso hori aurkeztea nahitaezkoa izango da ordena horretan aurkaratu aurreko izapide gisa.

Jurisdikzio zibila arduratuko da kontratua betearazteaz eta haren ondorioez.

Esleipendunak berariaz uko egiten dio bere bizilekuaren foruari, eta sor daitezkeen gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko eskumena duten Tolosako epaitegi eta auzitegien esku jartzen da.

31. DATU PERTSONALEN BABESA

Konfidentzialtzat joko dira enpresa esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz ezagut ditzakeen datu guztiak, eta haien identitatea eta sekretua gorde beharko dira. Enpresa esleipendunak kalte-ordaina eman beharko die TOLOSALDEA GARATZEN SAri eta eragindako pertsonei, lanbideko isiltasun-betebeharra urratzeagatik sortutako kalte-galerengatik.
Enpresa esleipendunak tratatu beharreko datu pertsonalak erabili behar baditu kontratua betetzeko, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 13ko 3/2018 Lege Organikoan eta hura garatzeko araudian xedatutakoa beteko da.

Enpresa esleipendunak ezin izango ditu aplikatu edo erabili kontratuaren ondorioz lortzen dituen datu pertsonalak kontratuan jasota ez dauden helburuetarako, eta ezin izango dizkio inori laga, ezta gordetzeko ere. Kontratu-prestazioa bete ondoren, TOLOSALDEA GARATZEN SAri eman beharko zaizkio tratatutako datu pertsonalak.

Tolosaldea garatzen

Tolosan, 2025eko martxoaren 25ean

II. ERANSKINA
PROPOSAMEN EREDUA

"..... jaunak/andreak,NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) hiria ....., helbidea:....., etab.), eta (kontratuaren izenburua jarri) .....kontratazioa arautuko duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak ezagututa

ADIERAZTEN DU

I.-Ezagutzen dituela Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria, Baldintza Teknikoena eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa ere, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II. Ordezkatzen duen enpresak kontratu hau burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar eta baldintza guztiak betetzen dituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako lanak onartutako Baldintza Agirian zehazten diren baldintzen arabera eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko dituela beti.

IV.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dela.

V.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako Hitzarmen Kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela: .....(...Kodea).

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

VI.- Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela zehaztutako lan horiek egiteko, URTEKO ..... euroko osoko prezioan (BEZa barne), honela banakatuta:
- Prezioa: ..... euro.

- BEZ aplikagarria (%.....): ..... euro.

Esandako prezioan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor: zergak, gastuak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industriala ere.

.....en, 202 ko .....
Sinadura. ESKAINTZAILEA.

III. Eranskina

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ALORREAN ENPRESENTZAKO BALDINTZEN ORRIAK ZERBITZUAK KONTRATATZEKO

Prozedura irekiaren, prozedura murriztuaren, prozedura negoziatuaren eta elkarrizketa lehiakorraren bidez esleitzen diren zerbitzu guztietan eta beren jarduera agentziaren bulegoetan edo agentziaren kontura jarduten dutenean beste zentro batzuetan kontratistek Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorrean bete behar dituzten obligazioak ezartzea izango da BALDINTZA ORRI hauen helburua.
Baldintza ORRI hauek administrazio-kontratuari gehituko zaizkio eta bi alderdiek sinatu beharko dute orrialde horietako bakoitza.

Enpresa kontratatzaileak laneko, gizarte segurantzaren eta laneko arriskuen prebentzioren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta bereziki:

1.- Gauzatu beharreko prestazioak lan-ordenantzarekin edo hitzarmen kolektiboarekin lotura dutenean, dagozkion lan ordenantzetako eta hitzarmen kolektiboko xedapenak betetzera behartuta egongo da enpresa kontratatzailea.
2.- Laneko arriskuen prebentzioan nahitaez betebeharrekoak edo beharrezkoak izango diren behar hainbat neurri hartu beharko ditu enpresa kontratatzaileak, langileen bizitzan, osotasunean eta osasunean eragina izan dezaketen arriskuen prebentzio egoki bati begira.
3.- Halaber, indarrean dagoen araudiak laneko arriskuen prebentzioaren alorrean ezarri dituen obligazioak ere bete beharko ditu.

I. JAKINARAZI BEHAR IZATEA.
1. Eskaintzaren fasea

Kontratistak bere eskaintzan nahitaez jakinarazi behar duena:

1.1.- Sektore publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotakoaren arabera Administrazioarekin kontratatzeko inolako debekutan sartuta ez egotearen ardurapeko adierazpena.
1.2.- Honakoaren zinpeko adierazpena egingo du:

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Legean eta hori garatzeko xedapenetan jasotakoaren araberako Prebentzio Plan bat izatea.
2. Langile horiek agentziaren instalazioetan beteko dituzten lanpostuetan Arriskuen Ebaluazioa egina izatea, eta arrisku horiek eragozteko beharrezkoak diren prebentziorako eta babeserako neurriak izatea.
3. Informazioa emango duela agentziako langileek edo parte hartzen duten beste enpresa batzuetako langileek gure instalazioetan egin behar izango dituzten jardueretan edo lanetan izan ditzaketen arriskuei buruz.
4. Agentzian jarduerak gauzatuko dituzten langileei bere lanpostuko arrisku orokorrei eta bereziei buruzko informazioa emango diela enpresak.

5. Jarduera horiek burutuko dituzten langileei lantokiko arriskuei eta prebentzio-neurriei buruz Agentziak emandako informazioa emango diela enpresak, eta baita larrialdi kasuetan gauzatu beharreko jarduketei buruzkoa ere.

6. Lanak gauzatzeko beharrezkoak diren kolektiboki babesteko neurriak eta Banaka Babesteko Ekipoak (BBE) emango dizkiela enpresak bere langileei, eta baita behar bezala ziurtatutako lan ekipoak eta produktuak ere, eta hori guztia indarrean dauden legeek eskatzen dutena betez.

7. Kontratistak bere gain hartutako lanak gauzatuko dituzten langile guztiek horretarako beharrezkoa den prestakuntza badutela, eta behar izanez gero, eguneratutako ziurtagiri ofizialak dituztela horretarako.

8. Enpresak bere langileen Osasun Zainketa egin duela, ezarrita dauden osasun-protokoloen arabera eta arrisku berezien alorreko araudia betez.

9. Agentzian lan egiteko prebentzio-baliabideak beharrezko denean izendatuko dituela enpresak, Laneko Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legearen eta 39/1997 EDaren arau esparrua aldatzen duen 54/203 Legean eta 604/2006 EDren bidez egindako ondorengo aldaketan ezarritakoaren arabera.

10. Agentziaren instalazioetan lan egiten duen bere langileren baten edo bertan dagoen beste edozeinen osasunean kaltea eragin duen edo eragin dezakeen gertaerari eta/edo istripuri buruzko informazioa emango dio enpresak gutun baten bidez Tolosaldea Garatzeni.

11. Enpresa kontratatzaileak azpikontratazioak egiten baditu, horiek ere obligazio berberak izango dituztela, eta enpresa kontratatzailearen ardura izango dela dokumentazioa biltzea eta hori behar bezala bete dadin zaintzea.

1.3.- Enpresak laneko arriskuen prebentziorako onartu duen kudeaketa-sistema: Bere Prebentzio Zerbitzua, Kanpoko Prebentzio Zerbitzuak (adierazi zein) edo Sistema Mistoa (Itun partziala Kanpoko Prebentzio zerbitzuarekin + jarduera batzuk bere gain hartzea izendatutako langile baten bidez edo bere teknikariaren bidez)

2.- Exekuzio-fasea

2.1.- Jarduera hasi baino lehen

Lan egin behar duen lekuan bere jarduerarekin hasi baino lehen, kontratistak idatziz azaldu beharko dio Tolosaldea Garatzeneri:

1. Zerbitzua gauzatzeko kontratistak enpresan izendatu duen arduradunaren izena, eta baita Prebentzioko Ordezkariena eta egin beharreko lanetan parte hartuko duten langileen izenen zerrenda ere, azpikontratatutakorenak barne, horien izenak eta abizenak, nortasun agiri nazionala eta prestakuntza profesionala adieraziz.
2. Arriskuen ebaluazioarekin lotura duten prebentzio-baliabideak izan behar dituzten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda.
3. Kontratua gauzatzeko lanetan parte hartuko duten langile guztiek, hala enpresakoek nola kanpokoek, lanean hasi direnean arrisku bereziei, babeserako neurriei eta larrialdietako neurriei buruzko informazioa jaso dutela egiaztatzen

duen agiria, eta baita bere jardueran eragina izango duten arriskuei buruzko beharrezko prestakuntza jaso izanari buruzkoa ere.

2.2.- Zerbitzua gauzatzeko fasean

Lanak gauzatzen diren aldi horretan, kontratistak enpresan duen arduradunak kontrataren ardura duen arduradunari enpresaren aldetik idatziz jakinarazi beharko dio:

1. Kontratak duen jarduketa horren barruan gertatzen den edozein aldaketa esanguratsu edo zerbitzua gauzatzerakoan bere langileen edo lana gauzatzen ari den zentroko langileen segurtasunean eta osasunean eragina izan dezakeen edozein gertaera. Aldaketa horrek, Kontrataren eta enpresaren langileen segurtasunaren eta osasunaren alorrean ekarriko dituen beharrak adieraziko dira idatzian.

2. Kontratako langileren batek izaten duen edozein istripu. Horren berri emateko idatzian, istripua zergatik gertatu den, izan diren lesioak, zergatiak eta horri buruz hartu diren neurriak azalduko dira.

<u>II. OBRA EDO ZERBITZUA BURUTU BITARTEAN KONTRATEK IZANGO DUTEN JARDUNA.</u>

1. Kontratistak lan batzuk egiteko izendatu dituen langile guztiek horretarako egokia den kualifikazioa eduki beharko dute, eta behar bezala eguneratutako ziurtagiri ofizialen jabe izan behar dute, eta halaber, heziketa eta jarraibide berezi batzuk jaso behar dituzte Tolosaldea Garatzenentzat egingo dituzten lanekin loturik, bereziki segurtasunarekin eta osasunarekin loturiko gai guztietan.

2. Lan arloko agintaritzak agentziari zigorren bat ezartzen baldin badio enpresa “kontratistako” langileek prebentzio-neurriak bete ez dituztelako, Tolosaldea Garatzenek eskubidea izango du enpresa “kontratistaren” aurka bidezkoak diren lege-ekintzak abiarazteko.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa hala izanik ere, enpresa “kontratista” horrek prebentzio-neurriak betetzen ez baditu, Tolosaldea Garatzenek zigor ekonomiko bat ezarri ahal izango dio enpresa “kontratistari”, gehienez ere kontratako aurrekontuaren % 5aren baliokidea izango den zenbateko batez. Enpresa “kontratistak” neurri horiek behin eta berriz betetzen ez baditu, agentziak ahalmena izango du abian diren ordainketak eta ziurtagiriak atxikitzeko, eta halaber, kontratu hori suntsiarazteko, eta enpresa “kontratistak” ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Horrez gain, agentziak ez betetze horrek eragin ahal izan dituen kalteak eta galerak erreklamatu ahal izango dizkio enpresa “kontratistari”.

3. Kontratatutako zerbitzua gauzatzeko orduan, babeserako nahiz lanak burutzeko kontratistak erabiltzen dituen material eta ekipo guztiek –bai norbanakoenak eta bai kolektiboak ere– laneko arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dagoen araudia bete beharko dute, eta Tolosaldea

Garatzenen esku egon beharko dute araudi hori betetzen dela egiaztatzen duten ziurtagiriek.

4. Agentziaren zentro batean edo agentziaren kontura lan egiten duten langile guztiek beren lanerako egokiak diren arropak eraman beharko dituzte, betiere garbitasun eta txukuntasun baldintza egokietan.

5. Agentziaren zentro batean edo agentziaren kontura lan egiten duten langile guztiak argi eta garbi identifikatuta egongo dira, baita erabiltzen dituzten ibilgailu eta ekipoak ere, enpresan dauden bitartean.

6. Gizarte Segurantzari, Laneko Mutualitateari eta Laneko Istripuen Aseguruei dagozkien kuotak eguneratuta eduki behar dituzte.

Langile guztiek jakingo dute:

·Zer izen duen beren enpresak kontratatua duen Lan Istripuetarako eta Gaixotasun Profesionaletarako Mutuak.

·Zein osasun-zentrotara joan behar duten, horretarako premia izanez gero.

Tolosaldea garatzen

ZINPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak, bere helbidea ..... herria eta ..... kalea izanik, eta bere NA zk. ..... delarik, ... enpresaren ordezkari eta/edo administrazio-arduradun gisa, sozietate horren helbidea ..... izanik eta bere IFK zenbakia .....

HAUXE AITORTZEN DUT:

1. ..... enpresak bere eginkizunetan aktiboki barneratu ditu laneko arriskuen prebentziorako egungo irizpideak, eta horrez gain, Prebentzio Plan bat du Laneko Arriskuen Prebentziorako Legean eta hori garatzen duten xedapenetan ezarritakoarekin bat datorrena.

2. ..... enpresak agentziarentzat jarduerak egingo dituzten langileei jakinaraziko die nolako arriskuak izango dituzten, bai Segurtasunarentzat eta bai Osasunarentzat ere, eginkizun horiek egin bitartean, eta arrisku horiei begira zer babes-neurri eta zer prebentzio-neurri hartu behar dituzten azalduko die.

3. ..... enpresak informazioa eskainiko du agentziaren instalazioetan langileek egin behar dituzten eragiketen edo lanen ondorioz Tolosaldea Garatzeneko langileei edo parte hartzen duten beste enpresa batzuetako langileei eragin diezaieketen arriskuei buruz, eta halaber, Tolosaldea Garatzenek banatutako informazioa zabalduko du bere langileen artean, bai laneko zentroak dituen arriskuei buruz, bai prebentzio-neurriei buruz eta bai larrialdi-kasuetan
jokatzeko moduari buruz ere.

4. ..... enpresak Segurtasun eta Osasun arloko heziketa eskainiko die Tolosaldea Garatzenentzat lanean arituko diren langileei, egingo dituzten eginkizun horiekin loturik.

5. ..... enpresak agentziarentzat lanean arituko diren langileei lan horietarako egokiak eta beharrezkoak diren babes-baliabideak eskainiko dizkie; baliabide horiek, hain zuzen ere, norbanakoen babeserako ekipoetarako eta laneko ekipoetarako ezarri diren indarreko lege irizpideak beteko dituzte.

6. ..... enpresan agentziarentzat lan egingo duten langile guztiek horretarako egokia den kualifikazioa izango dute, eta bidezkoa baldin bada, behar bezala eguneratutako ziurtagiriak izango dituzte.

7. ..... enpresak prebentzio-baliabide batzuk izendatuko ditu agentziaren laneko zentroan ezar daitezen, beharrezkoa izanez gero,

Laneko Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legearen esparru arau-emailearen erreformarako 54/203 Legeak ezartzen duenaren arabera
eta 39/1997 EDak eta hori geroago aldatu duen 604/2006 EDak ezartzen dutenaren arabera

8. ..... enpresak berehalako prozedura idatziaren bitartez edozein ezbehar eta/edo istripuren berri jakinaraziko dio Tolosaldea Garatzeni, baldin eta bertan lanean ari diren langileen osasunarentzat nola agentziaren instalazioetan egon zitekeen beste edozein pertsonaren osasunarentzat kaltegarria izan bada edo kaltegarria izan bazitekeen.

9. ..... enpresak azpikontratazioak eginez gero, azpikontratatutako enpresek ere obligazio berberak izango dituzte, eta ..... enpresaren ardura izango da dokumentazioa biltzea eta hori betetzen dela zaintzea.

10. ..... enpresak Prebentzio Zerbitzuen Araudian ezarritako baldintzak betetzen ditu eta prebentzio-zerbitzu hori berea bezala onartzen du, edo bestela, eginkizun horiek ..... Kanpoko Prebentzio Zerbitzuarekin kontratatu ditu.

11. ..... enpresak kontrol-lan bat egin du agentziarentzat jarduerak egiten dituzten langileen osasuna zaintzeko.

12. ..... enpresak bere langileen artean istripu kopuruaren gaineko azterketa eta kontrola egiten du.

13. ..... enpresak hitz ematen du zorrotz beteko dituela Laneko Arriskuen Prebentziorako 31/95 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako koordinazio-neurriak eta enpresa-jardueren koordinazioaren alorrean 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 E.D.

....(e)an, 202....(e)ko.....aren.....(e)an
Stua.....
NA.....